

GEOGARAPEN EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEAREN KUDEAKETARAKO ELKARTEA

Sozietatearen izena

Geogarapen, Asociación para la Gestión del Geoparque de la Costa Vasca.

IFK

G75018705

Izaera

Elkartea.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Gutxi gorabeherakoa.

Sorrera

2009ko azaroaren 16an, Zumaiako, Debako eta Mutrikuko Udalek Geogarapen Euskal Kostaldeko Geoparkearen Kudeaketarako Elkartearen eratu zuten, bazkide fundatzaile gisa. Ondoren, Gobernu Kontseiluak, 2010eko abenduaren 14an egindako bilkuran, Eusko Jaurlaritzaren erakundeko bazkide egitea eskatu zuen.

Sail-atxikipena

Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna.
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

EJSN

8412 Osasun, hezkuntza eta kulturaren alorreko jarduerak eta beste gizarte-zerbitzu batzuk arautzea, Gizarte Segurantzaren salbu.

Helburua eta xedeak

Elkartea helburu hauek lortzen ahaleginduko da:

- 1 Euskal Kostaldeko Geoparkearen lurraldea modu iraunkorrean eta orekatuan garatzea. Babes berezia izango dute kostaldeko balio geologikoak, naturalek eta kultureak. Elementu horiek guztiak babesteko, beraz, zenbait ekimen garatuko dira eta hainbat jarduerak martxan jarriko, lurralde horretan bizi diren pertsonen mesederako.
- 2 Lurralde horretako ondare naturala babestea eta zaintzea. Bereziki, lurraldeko ondare geologikoa babestea eta baliabide moduan duen balioa aintzatestea, herritarren garapen ekonomikoa eta soziala garatze asmoz.
- 3 Lurralde horretan lur-zientziak sustatzea ondoko alor hauetan: ikerkuntza, hezkuntza (arautua nahiz arautu gabea) eta zabalkuntza. Eta beste ingurumen- eta natura-zientzia batzuk bultzatzea.
- 4 Kultura-ondarearen balioa agerian jartzea, dinamizatzea, berreskuratzea eta zabaltzea.
- 5 Kultura-ondarearekin, ondare materialarekin nahiz ondare immaterialarekin lotura duten jarduerak sustatzea eta gauzatzea (tradizioak, ohiturak, ogibideak, ahozko memoria, sormen artistikoa, eta abar). Lehenetsuna izango dute ondare geologikoarekin, paleontologikoarekin eta arkeologikoarekin loturirik gehien duten jarduerak.
- 6 Ingurumen-hezkuntza sustatzea. Zainduko dira, bereziki, lurraldearen berezko balioak.

- 7 Natura-turismoa eta kultura-turismoa sustatzea, iraunkortasuna zainduz. Lurraldeko balio geologikoen garrantzi handia izango dute.
- 8 Turismo-kultura ez ezik lurraldearen eskaintza ere hobetzea.
- 9 Geoparkeen helburuekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoak dinamizatzea. Laguntza eskainiko zaie, bereziki, tokiko produktuekin lotura duten ekimenei.
- 10 Eta, azkenik, beste erakunde batzuekin sustatzea eta gauzatzea Elkarrearen xedeak sustatzen lagun dezaketen lankidetzajarduerak.

Sailkapena kontabilitate nazionalan

Sozietate ez-finantzarioak: pribatuak.

Sozietatearen Funtsa

Ez du halakorik.

Bazkideak

Zumaiako Udala
Debako Udala
Mutrikuko Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia
Eusko Jaurlaritza
Unesco Etxea.
Aranzadi Zientzia Elkartea
Debemen Debabarreneko Landa Garapeneko Elkartea
Urkome Urola Kostako Landa Garapeneko Elkartea
Debegesa Debabarreneko Garapen Ekonomikorako Elkartea
Urola Kostako Mankomunitatea

Batzar Orokorra

Batzar Orokorra bazkide guztiek osatuko dute. Organo horretan bazkideek beren iritzia eman ditzakete.

Ekitaldiko urteko kontuak

[Ekitaldiko finantzetako egoera-orriak eta jarduera-memoria.](#)

Ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	264.116 €
Ondare garbia	247.810 €
Salmentak eta merkataritza-jarduerako beste sarrera batzuk	121.081 €
Batez besteko langile-kopurua	Ez dago eskuragarri

Sozietatearen helbidea

Ifar kalea, 4. 20820 Deba (Gipuzkoa)

Webgunea

www.geoparkea.com